


Unibertso ez-bitarra

LGTBIQ+ nerabe eta gazteentzako gogoetak





Berasategi, 5 - 5º Bilbao, 48001
Tel. 944237296 - 665 734428
www.aldarte.org



@AldarteOrg



AldarteZentroa-Centro



aldarte_zentroacentro

- DATA: Azaroa, 2022.
- ARGITARAUUA: ALDARTE.
- EGILEAK: Lala Mujika, Gaizka Villar y Joseba Lopez de Gereñu.
- Marrazkiak: Miguel Gren  mi.gren.m
- LAGUNTZAILEA:


EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Gazteria Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Dirección de Juventud




Unibertsoa, konstelazio, izar, ilargi,
asteroide eta planetaz beteta dago

Konstelazioak

Pertsona ez-bitarra izateak (hemendik aurrera EB edo ebea) esan nahi du norbera **ez dela erabat eta gustora identifikatzen**, ezta modu sendo eta egonkorrean ere ez, gizon edo emakume izatearekin. Halaber, gizon edo emakume generoek esleitzen dituzten espektatiba edo betebeharrak sozialekin ez identifikatzea dakar.

Askotan batek ebea dela daki jaiotzean esleitutako generoarekin desadostasun handia sentitzen hasten delako. Ohikoa da jantziekin eta orrazkerekin ez identifikatzea, ezta esleitutako generoari dagozkion jarduera edo jolas batzuekin ere ez. Ohikoa da horrelako zerbait pentsatzea: **“ez dut mutila izan nahi, baina ezta neska ere”**, edo alderantziz. Hartu denbora eta ez ibili korrika zutaz egin duzun aurkikuntzan.

EBa oraindik hain gai ezezaguna denez eta kontzeptu horri buruz hain gutxi hitz egiten denez, EB bezala ohartzen zarenean, ohikoena, arazoa norberarengan dagoela sentitzea da, **zalantzak eta beldur asko izatea, erreakzio arruntak dira, baita hori adierazteko hitzik ez izatea ere**: Zer diot? Nork ulertuko nau? Nola esango dut nik ez naizela ez bata ez bestea?



Gainera, gerta daiteke neska edo mutil trans trantsizio-prozesu betean identitate ez-bitar batekin hastea. **Ez da ezer gertatzen, adibidez, mutil trans trantsizioan bazaude eta makilatzeke edo gona eramateko gogo baduzu.**

Honek guztiak ez zaitzala goibeldu! Mundua genero-aniztasunari lekua egiteko prestatuta ez egoteak, ez du zertan esan nahi bitarrak ez diren pertsonak existitzen ez zaretenik. Izan ere, gizarte bitarrak imajinatzen dituenak baino gehiago zarete. **Eta badakizu egia?** Behin beldurrak, zalantzak eta ziurgabetasunak gaindituta, bizitza ez-bitarra errazagoa eta gogobetegarriagoa bihurtzen da. Beraz, **ez neska ez mutila ez zarela sentitzen baduzu, agian unibertso ez-bitarraren parte zara.**



Izarrak, asteroideak, ilargiak eta planetak

Ez-bitar terminoa zabala da, sentsibilitate- eta sentiera-aniztasun handia biltzen duena. Izan ere, EB pertsonak euren burua izendatzeko moduak askotarikoak izan daitezke: ageneroa, transgeneroa, genero jariakorra, genero neutroa, mutil transmaskulino ez bitarra, emakumea ez bitarra, gizon ez bitarra, lesbiana ez bitarra, trans ez bitarra eta etortzeke dauden beste asko. Aniztasun handia, historia propioa duten esperientzia askorekin lotzen dena.



Beraz, **ez dago EBa zarela ohartzeko modu jakin bat**. Generoa aukera sorta handi bat bezalakoa da, eta bitarrak ez diren pertsona askok lan pertsonal eta emozional handia egiten dute beren generoari dagokionez zer puntutan dauden jakiteko. Eta gogoratu sentsazio hauek aldatu egiten direla bizitzan zehar. Orain dakizunak ez du etorkizuna baldintzatzen, ezta iragana ukatzen ere, hau da, baliteke etorkizunean genero bitarren batekin gustura egotea, edo iraganean egon izana. Horrek ez du ukatzen orain EB zarela.



Aniztasun handi honen ondorioz, gerta daiteke bere burua ez-bitartzat duen beste pertsona batekin elkartzea, eta sentitzen eta bizi duenaren esperientzia zurearen desberdina izatea. Kasu honetan, interesgarria da batzen duen horretan zentratzea, bereizten duen horren ordez, eta ez-bitarra izateak zer den ez murriztea, hau da, esanahi zabal bat uztea. Gogoratu behar da zenbat gatazka sortzen dituen bi genero-kategoria zurrun egoteak: gizona eta emakumea, identifikatu nahi ez duzun bi kategoria zurrun hain zuzen.

Generoen aniztasuna defendatuz, ezagutuz eta errespetatuz, mundua pertsona guztiek sentitzen duten moduan bizitzeko eta adierazteko aukera izango duten leku bihur dezakegu. Nahi dugun **generoa behar bezala bizitzeko aukera izatea da bilatzen duguna, ezta?**





Unibertsoa

Gizarte bitarrak nobedadeak balira bezala tratatzen ditu EB pertsonak, historian zehar eta kultura ezberdinetan (gurea barne) genero- eta sexu-aukera ugari egon direnean. Gure inguruan ahaztu dugun zerbait dirudi, genero binarismoa egoera normal eta naturalena bezala ulertzera heldu garelarik.

Lege-eremuan, ez dago bitarra ez den generoko pertsonarik; izan ere, edozein harreman juridikotan, pertsona guztiak hartuko dira gizontzat edo emakumetzat. Gero eta erakunde eta entitate gehiagok sartzen dute EB generoa, pertsonak beren jardueretan parte hartu nahi badute izena emateko baldintzetan, baina, egia esan, ekimen horiek ez dira lege-esparrura eramaten, eta, oro har, espainiar baten legez onartutako nortasuna dokumentu guztietan bitarra da (gizona edo emakumea).

¡Lasai! Horrek ez du esan nahi bitarra ez dena beste maila batzuetan ez dagoenik, hala nola maila sozialetan, harremanetakoetan, artistikoetan, etab. Gainera, geroz eta jende gehiagok ekimen sozial ezberdinetan parte hartzen ari dira, protokolo juridiko, sozial, hezitzaile eta medikoen gabezia salatzen helburu dutena, aldi berean, trans bitarrentzat jada existitzen direnak. **Egin bat haiekin!** Eta denborarekin geroz eta eskubide gehiago izango dituzu.

Adierazpen ez-bitarra




Nola adierazten da pertsona ez-bitar bat? Erantzuteko galdera zaila da, gure gizarte bitarrak bi genero-adierazpen mota baino ez baititu ulertzen, maskulinoa eta femeninoa. Imajinatzen hasita, burura datorren lehen irudia pertsona androgino batena da, hau da, oso gizonarena eta oso emakumearena ez den norbait.

Genero-anbiguotasuna da espero dena, baina ez luke zertan horrela izan behar. Lehenik eta behin, “binarismo eza” ez delako eremu anbiguo batean egotea, sentitzen den generoari buruzko zalantza etengabea egotea bezala, eta, bigarrenik, pertsona ez-bitar batek bere burua nahi duen bezala adierazi beharko lukeelako: pertsona ez-bitar batzuk eroso sentitzen dira beren genero-adierazpenaren inguruko interpretazioarekin, femenitate edo maskulinitatearekin lotzen bada ere, eta horrek ez du esan nahi emakumeak edo gizonak direnik. Eta pertsona ez-bitar batzuek anbiguotasuna bilatzen dute euren ez-binarismoa indartzeko, horrela hobeto ulertuak direla iruditzen baitzaie.

Hainbat pertsonak uste dute bitarrak ez diren pertsonak ez dutela ebakuntzarik egiten edo ez dutela hormonarik hartzen (transsexual guztiek hala egiten dutela pentsatzen duten bezala). Egia esan, aldakortasuna handia da gorputzaren aldaketekiko, eta badira prozesu hauek nahi ez dituztenak, baina baita ere nahi dituztenak ere, oro har, osasun publikoari tratamendu hormonalak eskatzen dioten **trans ez-bitarrak**, gaur egun trans bitarrei bakarrik aitortzen zaizkienak. Euskarak pertsonak eta haien errealitateak aipatzeko neutroa duen bezala, gaztelaniak ez du halakorik. Eta hori arazo bat da EB pertsonentzat erreferentziazko izenordaina aukeratzeko orduan. Testuinguru honetan, izenordain eta artikulua neutroak erabiltzen hasi dira, ez bitarrak – elle/elles, eta “e” letra genero-aurrizki gisa –, sistema bitarrak eta RAEk (Espainiako Errege Akademia) baliozkotu gabe jarraitzen duten arren, errealitate hori ikusarazteko balio izaten dutenak.

Arlo honetan aniztasun handia dago oraindik ere. Badira femeninoan, maskulinoan edo bietan izendatuak izan nahi dutenak. Badira testuinguruaren arabera egokitzen direnak. **Ez duzu zertan izenordainari buruzko behin-betiko erabakirik hartu behar, eta beti alda dezakezu.**

Zure inguruneak zu izendatzeko moduari dagokionez, konplexua izan daiteke zure nahien arabera egitea, zaila egin ahal zaielako, erresistentzia handiak dituztelako, edo azalpen asko eskatzen dituztelako. **Nahi duzun bezala izendatzen ez bazaituzte ematen dituzun erantzunak edo haserreak asko neurtu beharko dituzu. Egoerak etengabeko arreta eskatzen duela dirudi, baina ona da zure atsedetak hartzea**, egun osoan errete egotea ez baita interesgarria zure osasun mentalerako.



Biziraupenerak eta ongizaterako ideia batzuk



EZ ISOLATU:

LGTBI+ EB sentitzeak sor dezakeen bakardade-sentimenduari aurre egin behar diozu, “**hori gertatzen zaion pertsona bakarra zarela sinistea**”. Hau ez da horrela, kontrakoa dirudien arren eta zu bezalako beste inor ezagutzen ez baduzu ere. Zer egin liteke? Buruhaustek ez izateko eta zure bizitzara lasaitasun handia eramateko hainbat ideia proposatzen dizkizugu:



PASSING-ARI BURUZ

Arroparekin, makillajearekin edo gure gorputzeko beste elementu batzuekin adierazten garen moduan oharkabean pasatzea askotan erabiltzen dugu, eta gorroto- edo ezjakintasun-erantzun negatiboen aurrean segurtasuna eskaintzen digu. Gainera, normalean oraindik ulertzen ez den zerbait, binarismorik eza adibidez, egunero azaltzen aritzea nekagarria eta deprimigarria izan daiteke. Beraz, passing-ak bere logika du eta estrategikoki erabilgarria da, hau da, modu batean edo bestean egoeretara, pertsonetara eta inguruneetara “egokitzea” da, gusturago egoteko.

Hiru gauza proposatzen dizkizugu:

- **Zure ingurunean arakatu eta behatu** (institutua, unibertsitatea...), zure esperientzia bera bizi izan dezaketen beste pertsona batzuegan seinaleak bilatu. Hurbildu eta hitz egin haiekin. Ez urrundu laguntza handia eman diezazuketen hurbileko pertsonengandik.
- **Etiketarik irten** (batez ere asteburuetan) eta bizi zaren tokian ematen ari diren gizarte-, jolas-, kultura- edo kirol-jardueretan parte hartu (seguru badaudela). Pertsona asko ezagutu eta has zaitez zure koadrila sortzen.
- **Sartu sare sozialetan:** Internetarako sarbideak pertsona ez-bitarren erreferenteak bilatzen eta haiekin harremana izaten lagunduko dizu.
- **Sentitzen duzuna modu kolektiboan bizitzeko inguruneetara hurbil zaitez.** Zure eremuan LGTBQ+ taldeak edo transmarikabolleroak edo emakume-taldeak, feministak edo beste talde batzuk egongo dira, bizitzen ari zarenetik gertu dauden pertsonak ezagutzen lagun diezazuketenak, eta ez hori bakarrik, salaketa eta errebindikazio jarduerak egin ahal izango dituzun pertsona hoiekin, egoera sozial bidegabeak eraldatzeko eta genero aniztasuna balioan jartzeko



- 1.- **Denborarekin, passing-a ere nekagarria eta deprimigarria egin dakizuke**, azken batean, ez baita gustura egiten edo aukeratzen den zerbait. Eta, gainera, pertsona ez-seguruago bat bihurtzen zaitu, etengabe zeure buruari uko eginarazten dizutela dirudielako.
- 2.- **Planteatu ikusgai izateko eta nahi duzuna izateko espazioak**, handitu itzazu pixkanaka, presarik gabe baina etenik gabe.
- 3.- **Lagundua izan eta hautsi zure passing-a taldean.**

KOMUN PUBLIKOEN ETA ALDAGELEN GAI DESEROSOA


Nora joan? Mutilenera edo neskenera? Etengabeko kontua da, eta gogaikarriena bilakatu eta egoera oso bortitzetan jar zaitzakeena, zalantzan jartzen zaituztenean eta aukeratu duzun komunitik edo aldagelatik kanporatzen zaituztenean. Egia esan, ez dago gai honi modu erosoan ekiterik, beraz...

1.- Ahal duzunean (ezin da beti), generoari buruzko zehaztapen bitarrak bainugeletatik edo aldageletatik **kentzea aldarrikatu**.

2.- **Ez uko egin nahi duzun komun edo aldagelan egoteari**. Aukeratu komuna edo aldagela une horretan duzun erosotasunaren eta segurtasun pertsonalaren arabera.

3.- Komun edo aldagela jakin batean egoteagatik **jazarpenaren biktima bazara**, lasaitasuna mantendu egoera ulertzeko eta arriskuan zauden ala ez argitzeko. Beti duzu irteteko aukera arriskuan zaudela sentitzen baduzu. Zu ez zara arazoa, ez eskatu barkamenik ezta azalpenik eman ere, eta ez egin zure generoa liskar eta eztabaida sutsuko gai bat.

4.- **Komunetan edo aldageletan gertatzen zaizkizun gorabehereri buruz hitz egin ezazu**. Ez hartu zuretzat bakarrik. Amorrua hobeto bideratzen da partekatzerakoan, eta baliteke taldean egoerari aurre egiteko neurriak bururatzea.



EZ NAUTE NIK NAHI BEZALA IRAKURTZEN

Haserrea erantzun iraunkor gisa bezala ez da gomendagarria. Pentsa ezazu trans-bitar gaia jada zaila bada, ez-bitar gisa aurkezten duzun hau kategorio galaktikoa dela eta, oro har, zure inguruko pertsonak, zure EB generoari buruz zer esaten diezun ez dutela ulertuko.

Orrialdek, elkarteak, dokumentuak eta bestelako materialak erakutsi eta gomendatu ondoren, emaiizu denbora jendeari, aurkezten diezun eta beren borondatez ezagutu nahi duten, errealitatea barneratzeko. **Hasi gutxieneko ulermen amankomun bat eraikitzen binarismo ezari eta zure pertsonari buruz**. Galderak erantzuteko prest egon, direnak-direla. Arrazoitu, hitz egin, argudiatu lasai. Jendea bere pentsamendu bitarretik ateratzea zaila da, baina ez ezinezkoa. Prozesu honetan, hobe egin ahal izateko irakurtzea eta informatzea ez dago soberan. Komenigarritzat jotzen baduzu, partekatu eta gomendatu jendeari beherago dagoen herraminta-kutxan jartzen dugun estekaren bat.

Herraminta kutxa

ESTEKAK

- [Sexu- eta genero-Aniztasunaren Puzlea + azpitituloa EUS](#)
- [El Puzle de la DiversidadSexo-Genérica + sub CAS](#)

ORRIALDEAK

- <https://www.aldarte.org/es/>

DOKUMENTUAK

- [GIDA DIDAKTIKOA SGA PUZZLEA](#)
- [GLOSARIO DE TERMINOS / HITZEN BILDUMA](#)
- [UNIDAD DIDÁCTICA PUZZLE DSG](#)

